

June Aiestaran Iparragirre

D maila • 1 saria

Kaixo, nire izena June da, eta Beasaingo Loinazpe Institutuan DBHko 2. maila egiten ari naiz. Arlo asko ditut gustuko, baina batez ere, bertsolaritza maite dut.

Bertso-sorta hau iazko udan idatzi nuen, itsasontzian, oporretatik bueltan. Bidaia luzea izan zen, eta bertso batzuk idazteko tartea ere hartu nuen. Itsasoari begira, ohartu nintzen oso zorteduna nintzela horrelako opor zoragarri batzuk bizitzeko aukera nuelako; eta jabetu nintzen mundu guztiak ez duela hori bizitzeko aukerarik, eta zorionak ez lukeela izan behar batzuen zortea soilik. Itsasontzi hartatik atera dira lau bertso hauek. Espero dut asko gustatzea!



Doinua: Habanera

BOTILA BETE EGIA

“Niretzako izozkia

beti omen da gehiegi,

eta ahizpari erosi,

amatxo ez da zilegi!”

Berak hala erantzun dit:

“ixo eta egon geldi,

bihar erosiko dizut,

orain uretara segi!”

Beraz, han abiatu naiz

belztuz mutur eta begi,

eta han ari nintzela

eraikiz hamaika egi,

hara non ikusi dudan

niregandik gertuegi,

kristalezko botila bat

olatuetan igeri!

“Kaixo Siriakoa naiz,
nire izena da Frida,
aurten hamar leherketa
jasan ditugu guztira.
Egoera aldatzea,
hori da gure desira;
aurka ditugun horiek
oso gaiztoak baitira.
Hemengo biztanleria
dena beldurrez bizi da,
beraz, laguntza eskatu
nahi dugu mundu guztira.”
Hitz bakoitzak nigan sortu
duen minaren harira,
izoztuta gelditu naiz
eskutitzari begira.

Ez dakit entzungor egin
edo gaur egin maleta,
erreakzionatzerako
galdu behar dut oreka.
Nola jarri naiz izozki
soil batengatik erreta,
daukaguna baloratu
behar genuke tarteka.
Botila eskuan hartu dut
papera ondo gordeta,
amarengana joan naiz
ahaztuz lehengo kasketa.
Mezua kontatu diot
itxaropenez beteta,
honen aurrean zeozer
egin beharra dago-eta!

Ojala bizimodua
horren zaila ez balitz han,
baina tamalez ez dago
hori guztion jakintzan.
Has gaitezen mundu berri
bat marrazteko plangintzan,
malkorik isuri gabe
izozki baten baldintzan.
Ozen garrasi egin dut
denon egia bailitzan:
"ez dakit hain itsututa
nola demontre gabiltzan.
Lore bat landa dezagun
behar dutenen bizitzan,
zoriona ez dadila
batzuon zortea izan!"